



## **ERAIKINEN ERABILERA ALDATZEKO ETA ERAIKITZEKO LIZENTZIA BATERATUA.**

\* Aurrez Kontsultatu ez bada, eskatzaileak lokalaren egoera zehaztuko du. Aipatu lokala, halaber, Erabilera Aldatzeko baimena duten kaleetako batean egon beharko da, halaxe zehazten baitu Obrak eta erabilera aldatzeko Udal Ordenantzaren 1. Eranskinak.

\* Kasu guztietan, Lokalaren titulartasuna egiaztatu beharko da. Horretarako, Erregistroaren eguneratutako nota sinplea besterik ez da behar.

\* Exekuzio proiektua, teknikari eskudunak izenpetua eta beraren Elkargo Profesionalak ikus-onetsia. Proiektuak, gutxienez, ondoko agiriak izan behar ditu:

- Txosten deskriptiboa eta justifikatzailea.
- Eranskin teknikoak: EKT egiaztagiria, Irisgarritasuna, Obraren Kontrolari buruzko plana, eta abar.
- Baldintzen agiria.
- Aurrekontu banakatua
- Segurtasunari eta Osasunari buruzko oinarritzko azterketa edo Segurtasunari eta Osasunari buruzko txostena.
- Etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko eskuliburua
- Planoak: Kokalekua (lokalaren argazkiak), Arkitekturaren planoak (kotaturik), Instalazioak, Akaberak, Zureria, Errementaritza eta eraikuntza-apaingarriak.

\* Etxejabeen Elkarteko Akta Liburuaren fotokopia, eskatzaileak proposatutako erabilera-aldaketa onartu edo ezeztatzeko Hitzarmenarena, hain zuzen.

\* Elkargoaren enkarguari buruzko Jakinarazpen Orria edo/eta esku hartuko duten Teknikoen zerbitzu profesionalak alokatzeko kontratuak, bi aldeek sinatuak.

**EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE.**

**AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.**

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.